

Leioako Udalak, Behargintzaren bitartez eta Metapostarekin elkarlanean, zerbitzu berritzaile bat jarri du martxan: Tiket Gabe programa.

Programa honen bitartez, kanpainarekin bat egin duten negozioetan fakturarik ez inprimatzea lortu nahi da.

Ekimen hau onuragarria izango da kontsumitzaileentzat, izan ere edozein gailu elektronikotan gorde ahalko dituzte erosketen tiketak, fakturak edo bermeak erabateko segurtasun eta pribatutasunarekin. Halaber, negozioentzat ere onurak ekarriko ditu, materialak eta baliabideak aurreztuko dituztelako eta datuetara berehalako sarbidea izango dutelako.

Informazio gehiago [hemen](#).